

IBERDROLA eta EROSKI elkartu egin dira, supermerkatu kateko saltoki guztietan karbono aztarna gutxitzeko

Energia enpresak aholkularitza emango dio EROSKIri, eta, kontsumoan eta instalazioetan oinarrituta, energia eta deskarbonizazio arloan lagunduko dio eraginkortasun proiekturik onenei ekiten

EROSKIk bere saltokietan energiaren eraginkortasuna hobetzeko gauzatuko dituen ekintza guztiak Energia Aurrezteko Ziurtagiriei lotuta joango dira, eta Iberdrolak kudeatuko ditu

EROSKiren mugarri garrantzitsuenetako bat da berotegi efektuko gasik ez emititzera iristea 2050ean

Bilbo, 2025eko otsailaren 11.- [Iberdrolak](#) eta [EROSKIk](#) beste pauso bat eman dute beren lankidetzaz hitzarmenean, eta elkarrekin arituko dira supermerkatu kateko saltoki guztietan, karbono aztarna gutxitzeko elektrifikazio arloko soluzioak bilatuz. Hala, EROSKIren supermerkatu eta lantegi guztiek emisioak gutxituko dituzte, eta, askotariko ekintzen bidez, aurreztu egin ahalko dute energiari lotutako fakturretan. Iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea da energia aldetik soluziorik eraginkorrena. Horrela ez du egon beharko erregai fosilen mende.

Iberdrolak askotariko alternatibak aztertuko ditu, EROSKIk energia ikuskaritza baten bitartez gauzatzeko modukoak. Ikuskaritza horrek aholkulari lanak egingo ditu, eraginkortasun arloko proiekturik onenei ekin diezaien kontsumoan eta instalazioetan oinarrituta.

EROSKIk bere saltokietan energia eraginkortasuna hobetzeko beteko dituen ekintzek diru aurrezpen gehigarri bat ekarriko diote EROSKIri. Alde horretatik, Energia Aurrezteko Ziurtagirien sistemaren bitartez gauzatuko ditu ekintza horiek. Iberdrolak kudeatu eta izapidetuko ditu ziurtagiriok.

Proiektuak *Net Zero Emissions Manager* plataformaren bitartez kudeatuko ditu: orain berriki ateratu dute, Iberdrolak Balantia osoa erostearen ondorioz. Tresna horrek CO₂ aztarna kalkulatu du: inpakturik handieneko prozesuak zehazten ditu, eta era automatizatuan eratzeko dituen deskarbonizazio planak araudia betetzeko helburuarekin, orobat 2030era eta 2050era begira ezarriak dauden helburu

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

klimatikoak betetzeko. Horretaz gainera, ekipoen zerrendak, aktiboen soslaiak eta faktura datuak ere kudeatzen ditu.

Emisioak gutxitzeko egindako hitzarmen honek beste behin erakusten du nolako konpromisoa duten bi konpainiek energia trantsizioan aurrera egiteko. Iazko ekainean, bi konpainiek ibilgailu elektrikoetarako 1.000 kargagune instalatuko zituztela iragarri zuten, guztiz iturri berriztagarrietatik datorren energia berdearekin elikatuta. Energia horrek jatorriaren bermea erakusten duen ziurtagiria leukake, eta banaketa taldearen 300 gune ingurutan ezarriko lituzkete.

"Hitzarmen horrek Iberdrolaren deskarbonizazio estrategia indartzen du, eta agerian uzten du eragile inplikatu guztiek elkarrekin jardun beharra dutela energia trantsizioaren bidean. Beste behin ere, EROSKI taldea aliatu argia da ingurumenaren eta gizartea hobetzearen alde borrokatzeko bide horretan", azaldu du Eduardo Lobatok, Iberdrolaren Iparraldeko ordezkari komertzialak.

"2050erako karbono aldetik neutraltasuna erdiesteko, lehenik eta behin, saiatu behar dugu erakundeak kontrolatzen dituen jardueren emisioak ahal den gehiena gutxitzen. Horretarako, gure ekipoen eta prozesuen eraginkortasuna hobetu behar dugu, energia berriztagarrien erabilera handitu eta horniketa iraunkorragoa lortu gure jarduera guztietan, hala nola plataformak, gune logistikoak, saltokiak eta ibilgailuak", azpimarratu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI: klima aldaketaren aurkako borrokarekin dugun konpromisoa

EROSKI taldeak konpromiso sendoa du ingurumen arloan, eta ildo horretan hainbat gauza egiten ditu produktuak eta prozesuak hobetzeko, baita kontsumitzaileen eta langileen sentsibilizazioa handitzeko ere. Hori dela eta, gero eta ahalegin handiagoa egiten ari da iraunkortasun aldetik. Hala, kooperatibaren helburu garrantzitsuenetako bat da 2050erako berotegi efektuko gasik batere ez isurtzea. Europako Batasunak Jokabide kode bat du, elikagaiekin egiten diren negozioak eta marketin praktikak arduratsuak izan daitezen, eta horren barruan sartzen da EROSKIren erronka hori.

EROSKIk bi Lean & Green izar eskuratu ditu lau urte honetan %30 murrizteagatik logistika eta garraio prozesuetan isurtzen duen CO₂ kantitatea. Era berean, %40 baino gehiago murriztu ditu 1. eta 2. irismena duten berotegi efektuko gasen isuriak 2017tik; produktu ekologiko gehiago merkaturatu ditu, 1.400 baino gehiago dira dagoeneko; animalien ongizatearen zigilua jarri die bere haragi zuri guztiei; are gehiago murriztu du plastikoa, eta ontzi birziklagarriagoak erabiltzen ditu: 180 ontzi

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

baino gehiago ekodiseinatu ditu. Duela bi urte, Planet Score ingurumen etiketa berria erabiltzen hasi zen, eta lehen banaketa enpresa izan zen hori egiten. Iaztik, EROSKIren dendetan beste 30 bat elikagaik eta produktu freskok dute zigilu hori.

Horrez gain, 2023an Leed Gold ziurtagiria eman zioten EROSKIri Gasteizko Lakua-Arriagako denda iraunkorragatik: zigilu horrek ziurtatzen du eraikina iraunkorra dela eta ekoefizientzia irizpideen arabera eraikia dela. Sare komertzial osoan duen supermerkatu iraunkorrena da hori, eta energia eredu berri bat ezarri du kooperatibaren dendetarako.

Iberdrola: bultzada deskarbonizaziorantz

Ekonomia elektrifikatzeko nolako premia dagoen ikusirik, hori baita eraginkorra eta kostu txikiena duena deskarbonizazio bidean, Iberdrola Españak produktu eta zerbitzu gama zabala du, efizientzian, energia aurrezpenean eta ingurumenaren zaintzan laguntzen dutenak, eta aldi berean bezeroa erdigunean jartzen dute, konektibitate eta erabaki-gaitasun handiagoa emanez.

Soluzio horiek dira: Smart Mobility, ibilgailu elektrikoetarako osotasuneko soluzioa ematen duena; Smart Solar, autokontsumo fotoboltaikorako; Smart Services, energia arloan eraginkortasuna hobetzeko eta energia aurrezteko aholkularitza zerbitzuekin; Smart Clima, berogailu eta hozte soluzioetarako eta energia arloko birgaikuntzarako.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)